

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Guardiako Udalaren lokalak eta altzariak erabiltzearen prezio publikoak kudeatzen dituzten araei

Udalbatzak, 2019ko urriaren 24an egindako ohiko osoko bilkuran, hauxe erabaki zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Guardiako Udalaren lokalak eta altzariak erabiltzearen prezio publikoak kudeatzen dituzten araei.

Bigarrena. Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako xedapenetan xedatutakoarekin, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorri, behin betiko onetsiko da ordenantza erreklamaziorik aurkezten ez bada, eta haren testua ALHAOn argitaratuko da.

Guardia, 2019ko abenduaren 2a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO